



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 2019ko IRAILAREN 26an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2019ko irailaren 26an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 17.00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Aitor Beistegui Fiallegas  
Maialen Alonso Labandibar  
Vicente Garcia Momblona  
Jesus Maria Tejada Cantero  
Mireia Ruiz Delgado  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:


1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
  - 2019ko uztailaren 24ean egindako ohiko bilkura/ Sesión de fecha 24 de julio de 2019.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
3. **Tokiko Gobernu batzordeak hartutako erabakien berri ematea, hala bada/ Dación de cuenta de los acuerdos adoptados en la Junta de Gobierno Local.**
4. **Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
5. **Beste batzuk/Otros.**
6. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

..//...

#### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO**

- ☐ 2019 urteko uztailaren 24ean Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **BIGARRENGO PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 68/2019 tik 89/2019ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkate-Lehendakari andreak batzarkideei Tokiko Gobernu Batzordeak hartutako erabakien berri ematen die, ondorengoak izanik:

- Oinkari dantza taldeari esleitzea, Larraulgo herrian 2019/2020 ikasturterako dantza klaseak eman ditzan.
- Iñaki Esnal Aizpurua jaunari esleitzea, Larraulgo herrian 2019/2020 ikasturterako esku pilota klaseak eman ditzan.
- Zu eta Biok enpresari, Kultur etxea eta Udaletxea garbitzeko 2018/2019 ikasturtean eginiko kontratua abenduaren 31arte luzatzea.
- Eba Erkizia Brion arkitektoari, Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta aarkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzua abenduaren 31arte luzatzea.
- 2019ko abenduaren 31arte, OSK enpresari datuak babesteko erregelamenduak eskatzen duen ordezkari lanak egiteko zerbitzua esleitzea.
- Consuelo Urteaga Uria andreari, Larraulgo 2013/2019 urte bitarteko artxiboko dokumentazioa antolatzeko lanak esleitzea.


Batzarkideek jakinaren gainean gelditzen die.

### **LAUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondoren Alkate andreak, batzarkideei jakinarazten die, Tokiko Gobernu Batzordeak **28.529,58** Eurotako faktura erlazioa onartu duela.

Batzarkideak jakinaren gain gelditu direlarik.

### **BOSTGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**Batzarkideak aho batez, Udalbatza honetan, hurrengo puntua gai zerrendan sartzea onesten dute:**

### **5.1. TOLOSALDEA GARATZEN ETA APATTA-ERREKA INDUSTRIGUNEKO 2. UDAL ORDEZKARIA IZENDATZEA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Udalak Tolosaldea Garatzen eta Apatta-erreka industriguneko udal ordezkari titularra eta ordezekoak izendatu zituela.

Ikusirik, Larraulgo Udalak interesa duela Tolosaldea Garatzen eta Apatta-erreka industriguneko 2. Ordezkaria izendatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Tolosaldea Garatzen-en, Larraulgo Udaleko 2. Ordezkaria Jesus Maria Tejada Cantero izendatzea.

BIGARRENA: Apatta-erreka industrigunean, Larraulgo Udaleko 2. Ordezkaria Maite Arana Perez izendatzea.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri Tolosaldea Garatzen eta Apatta-erreka industriguneari ematea.

### **5.2.OHIKO UDALBATZAREN ORDUA ALDATZEKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik beharra ikusten dela Ohiko udalbatzaren ordua aldatzeko.


Ikusirik, orain arte, Ohiko Udalbatzak, hileko azken ostegunetan arratsaldeko 16:30 orduetan egiten direla. Proposatzen delarik “ordutegian” aldaketa bat egitea, hau da, arratsaldeko 16:00 orduetan izatea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

**ERABAKITZEN DU:**

BAKARRA: Ohiko Udalbatzak, hileko azken ostegunetan arratsaldeko 16:00 orduetan egiteko onespina ematea.

### **5.3. PROGRAMA BIDEZKO LARRAULGO LIBURUTEGIA ETA HERRIAREN DINAMIZAZIOARAKO LANPOSTUA BEHIN BEHINEKOZ HORNITZEKO LANBIDERA ESKERA, HALA BADA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Larraulgo liburutegia eta herriaren dinamizaziorako lanpostuari dagokion Programa onartu zela 2018ko abenduaren 17an, Ruth Tome andrea bitarteko funtzionarioa izendatu zelarik programa hori aurrera eramateko.

Ikusirik, Ruth Tome andreak aipaturiko programa utzi duela.

Ikusirik, hainbat zerrenda erabili izan direla, aipaturiko programarekin jarraitzeko, eta hautagairik ez dagoela.

Ikusirik, Larraulgo Udalak urgentziazko beharra duela Larraulgo liburutegia eta herriaren dinamizazioa aurrera eramateko pertsona bat kontratatzeko.

Ikusirik urgentziazko behar horren baitan, Larraulgo Udalak LANBIDE-ra zuzentzeko proposamena egiten duela, dagokion deialdia onartu bitartean lanpostua hornitzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Liburutegia eta herriaren dinamizazioa aurrera eramateko pertsona bat kontratatzeko urgentzitasuna onartzea.

BIGARRENA: Larraulgo Liburutegia eta herriaren dinamizazioa aurrera eramateko programarekin jarraitzeko dagokion deialdia gauzatu bitartean, LANBIDEN-n aipaturiko lanpostua behin behingoz hornitzeko deialdia egitea.


### **SEIGARREN PUNTUA**

### **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

M.C.G. herritarrak batzarkideei jakitera ematen die, Udalbatza honetara etorri dela udalbatza honetako kide berriak ezagurtzera.

M.C.G. andreak ere batzarkideei jakitera ematen die, azkenaldi honetan oso zikina dagoela zaborrontziak dauden gunea, eta neurriak hartu beharko dituztela. Ildo honetatik ere M.C.G. andreak adierazten du, konpostagailuak jarri zituztenetik, arratoiak ugaritu egin direla, proposatzen duelarik, herrian desratizazioa egitea, arratoien pasoko garaian.

M.C.G. –k eginiko proposamena kontutan hartuko dutela azaltzen du Alkate andreak.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 17:30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.